

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Iruñean eta Berriozarren babestutako 292 etxebizitzaren esleipenerako izena emateko epea zabaldu da

Nafarroako Gobernuak etxebizitza-eroldan jadanik izena emandako pertsonen parte hartu ahalko dute irailaren 16a bitarte

Lunes, 01 de septiembre de 2014

Nafarroako Gobernuak irailaren 16a arte zabaldu du babestutako 292 etxebizitzetako baten esleipenerako izena emateko epea (egun hori barne). Etxebizitza horiek Navarra de Suelo y Vivienda (NASUVINSA) enpresa publikoak hilabete honetan, [eskatzaile-errola](#)

bidez, esleitzea aurreikusten duen lau sustapenetan banatuta daude (hiru Lezkairun eta bestea Artiberri II-an).


Esleipen-prozesu horren barneko etxebizitza guztiak babes ofizialekoak dira, jabetzako eta kooperatiba-jabetzako araubidean, eta Iruñeko Soto Lezkairun (268 etxebizitza) eta Berriozarreko Artiberri II-an (24 etxebizitza) daude

Lezkairuko 268 etxebizitzak hiru sustapenetan banatzen dira: etxebizitza horietatik 120 –jabetzako araubidean– NASUVINSAK sustatzen ditu, 111 –kooperatiba-jabetzako araubidean– Habitat Lezkairu, SC enpresak eta 37 etxebizitza –kooperatiba-jabetzako araubidean– Lezkairu de Vitra Parque del Arga, SCL enpresak sustatzen ditu.

Lezkairuko 3 sustapenak batzen dituen 268 etxebizitza horietatik, 225ek hiru logela ditu, 35ek bi eta 8k lau logela ditu.

Abaigar Promociones SL enpresak sustatutako Artiberri II-ko (Berriozar) 24 etxebizitzetara dagokienez, haiek guztiek hiru logela dituzte.

Ondorengo estekan sustapen bakoitzeko etxebizitza bakoitzaren ezaugarriak xehetasun handiagoarekin kontsulta daitezke:



Esleitu behar den sustapen baten berregitea.

http://www.navarra.es/home_es/Temas/Vivienda/Ciudadanos/Censo+de+vivienda/Promociones+en+vigor/

Etxebizitza horien hasierako esleipenaren behin-behineko zerrenda datorren **irailaren 18an** jakingo dela aurreikusten da, eskatzaileek adierazitako baremo eta lehentasunen ondoriozko zerrenda. Data horretan bertan alegazioak egiteko 10 eguneko epea zabalduko da, eta ondoren behin betiko zerrenda onartuko.

Une horretatik aurrera, esleipendunak babestutako etxebizitza onartu beharko du eskatutako dokumentazioaren entregatuta edo, bestela, errefusatu, etxebizitza horri uko eginez.

Etxebizitza baten esleipenerako izena nola eman

Etxebizitzetako baten esleipenerako izena eman nahi dutenek, hori gaurko eguna baino lehen eskatzaileen erroldan eginda izan beharko dute, eta ondorengo webgunearen estekan sartu irailaren 16a baino lehen, eskaera egiteko: <https://administracionelectronica.navarra.es/censovivienda/Inicio.aspx>. Horretarako, ziurtagiri digitala izan beharko dute eta, halakorik izan ezean, NANA eta Ogasunak emandako PIN pertsonala erabiliz sartu ahalko dira.

Izena emateko prozesuan arazorik sortzen bada, eskatzaileak mezu elektronikoko bat bidaliko du NASUVINSARA (censo@nasuvinsa.es- helbidera edo bertako bulegoetara joanez) –aldeztatik 012 hitzordua eskatuta– aurretik aurreko eskaera egiteko.

Gogoratu behar da babestutako etxebizitza-eskatzaileen Errolda bakarraren sistemarekin (Nafarroako Gobernuak 2011. urtean jarri zuen), eskatzaileek behin baino ez dutela izena emango Foru Komunitatean eskainitako babestutako etxebizitzaren sustapen guztietan parte hartzeko; haien esleipen-prozesuak hiru hilean behin hasten dira honako data hauetan: martxoak 1, ekainak 1, irailak 1 eta abenduak 1.